

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

I.B.A.-n funtsezko baliabideak honela banatzen dira:

- Baliabide fisikoak: Arroparen kalitatea da guretzat ezinbestekoa, horrek egiten baitu gure marka berezia izatea.
- Baliabide intelektualak: Diseinua eta merkatuen estrategia egokiak hartzeko ahalmena
- Giza baliabideak: Proiektuaren arrakasta bertan parte hartzen duten agente guztiei esker izan da. Sortzaileen ekintzaile gaitasun eta motibazioa beharrezkoa izan da hasiera batetik. Bestalde dendan lan egiten duten langileen profesionaltasuna eta bezeroekiko duten tratua (langileak, hornitzaileak, ekintzaile taldea...)
- Finantza-baliabideak: Bazkideek jarritako dirua eta bankuarekin lortutako mailegua. Diru hori ezinbestekoa izan da, proiektua aurrera ateratzeko.